

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako 2023ko dirulaguntza-deialdia

Pasaia Udalbatzak Euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen ordenantza onartu zuen 2021ean, besteak beste udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako dirulaguntzak emateko.

Eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan, Pasaia Dirulaguntzen arautegi orokorraren eta dirulaguntzak emateko aipatutako Ordenantzan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENA: Onartzea udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako 2023ko dirulaguntza-deialdia, ebazpen honen eranskinean jasotako testuaren arabera.

BIGARRENA: Kontu-hartzaileak BDNSri beharrezko dokumentazioa ematea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Deialdiaren testua ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

Pasaia, 2023ko martxoaren 10a

Izaskun Gómez Cermeño
Alkatea

DEIALDIA

1. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak honako ordenantza honetan jasota daude: euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen ordenantza. Dirulaguntza hauek Pasaia Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoan jasota daude.

Dirulaguntzen onuradunek, betiere, Pasaia Udalaren Dirulaguntzen Arautegiak jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantzaren eta Pasaia Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean dituztela egiaztatu. Betekizun horiez gain, dirulaguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

2. Aurrekontu-kredituak

Dirulaguntza ondoren zehazten den aurrekontu-kredituari egokitza zaio; eta dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa honako hau da:

10.481.04.335.00 – 7000 euro

3. Dirulaguntzen xedea, baldintzak eta helburuak
Pasaia Udalak udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakunde euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzeko dirulaguntzak eskaintzea.

4. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea
- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea
- Eskabidea telematikoki aurkeztea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita ekainaren 30era bitartean.

5. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna

Espedientea bideratzeko eskumena duen organoa hau da: EUSKARA SAILA.

Espedientea bideratzean txosten hauek jasoko dira: dagokion informazio-batzordearen txostena eta dagokion arloko teknikari eskudunaren txostena, ebaluazioa edo ebazpen-proposamena. Ebazpena emateko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera eta proiektuaren memoria.
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.
- Zinpeko aitorpena. Bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, dirulaguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez duela egiaztatzen duena.

Zuriketarako aurkeztu beharreko dokumentazio minimoa:

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak egindako eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria aurkeztuko du, ekintzaren gastu eta diru sarreraren balantze xehea barne.

7. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 4 hilabetekoa da eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik. Gehieneko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

8. Onartutako dirulaguntzak ordaintzeko arauak

Onartutako eskaerei dagokien dirulaguntzaren %80a 2023an ordainduko da eta %20a behin proiektuaren zuriketa aurkeztutakoan. Aurkeztutako memoriaren zuriketa 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

9. Administrazio-bidearen amaiera

Diru-laguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 19/2013 Legearen arabera.

10. Eskaeren balorazio irizpideak.

Ikusi: Pasaiaiko udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2021/05/10/c2102940.pdf>

11. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal egoitza elektronikoan

 PASAIKO UDALA www.pasaia.eus	Udalerriz gairdiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakudeentzako 2023ko dirulaguntza-deialdia	IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 916 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia EUSKARA euskara@pasaia.net T680700
--	---	--

(www.pasaia.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Halaber, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (BDNS) argitaratuko dira.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU535d9d6e-1968-4807-963c-f226cc0887d9**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>**